


matia
zaleak


MEMORIA

2022



Ezagutu gaitzazu

matia
zaleak



Ezagutu gaitzazu

Nor da MatiaZale?

MatiaZale pertsona guztiak gara eta Matia Fundazioaren xedearekin bat egiten dugu: "Pertsonen zahartze-prozesuan laguntzea ongizatea hobetzeko, haien autonomia eta duintasuna sustatuko duten ezagutza eta zerbitzu pertsonalizatuak sortuz".

Zer egiten dugu?

Gipuzkoako gizartearekiko konpromisoa sustatu nahi dugu, adinekoek eta aniztasun funtzionala duten pertsonen bete gabe dituzten beharrei erantzuteko asmoz. Ildo berean, Matia Fundazioaren laguntza sareko elkarte eta erakundeen eta Gipuzkoak o gizarte osoaren beharrei era erantzuna ematea da gure asmoa. Eta gainera, dugun xedean laguntzen duten pertsona eta elkarten aitortza burutzea.



Zer da partehartzea?

Zahartzea eta desgaitasuna agerian jarriz eta horren berri emanez apoiatu eta partehartzea, pertsonen ongizatea eta bizitza hobetzeko helburuarekin

Zahartzearen eta desgaitasunaren alorreko jardueretan parte hartzea eta horien inguruko informazioa jasotzea.

Gure lurraldearen hobekuntza sozialean laguntzea, gure gizarte errealitatearen funtsezko esparru batean arituz



Zure ekarpenak onura fiskaletarako eskubidea ematen dizu

ertsona fisikoa edo juridikoa izanda, zure ekarpen ekonomikoak zergak arinduko dizkizu hurrengo errenta aitorpenean. Dohaintzaren ziurtagiria bidaliko dizugu horretarako.



Ezagutu gaitzazu



950
Matiazale



63
Bazkide

1029
Matiazales
2022an

41
Enpresak



17
Eskolak



45
Elkarteak



Boluntariotza

matia

zaleak



Matiako Boluntariotza

1915
pertsona boluntario

15.480 
emandako orduak

Boluntariotza oso balio garrantzitsua da Matia Fundazioan. Boluntario eta elkarte askok era askotara laguntzen dute, beti ere beren denbora eta ilusioa eskainiz.

Pixkanaka presentzia errekeratzen doa pandemiak eragindako efektu negatibotik.



1.225

Kultur jarduerak



275

Aisialdiko jarduerak
eta ireteerak



61

Laguntza jarraituak



354

Belaunaldien arteko
programak

Boluntariotzan

laguntzen duten elkarteak




Hospitalidad de Lourdes Gipuzkoa
Gipuzkoako Lourdes Ospitalitatea
Medalla al Mérito Ciudadano



BIZIKLETAZ
ADINIK
EZ



Eskerrak eman nahi dizkiegu pertsonen aldeko ekarpenak egiten jarraitzen duten eta horrela laguntzen jarraitzen duten boluntariotza-erakunde guztiei.



Ekimenak

matia
zaleak

2022an lortutako **Ekimenak**



5

- Itsasora Begira
- Lehio ireki bat
- Zaintzailea lagundu eta formatzen
- Hausnartu eta ekin
- Ukraniarekin guztiok



Itsasora begira

Elizaran zentroko babespeko etxebizitzetan bizi diren pertsonen **osasun integrala** zaintzea da proiektu honen helburu nagusia. Horretarako, La Perla-ko talasoterapiara talde irteerak egiten hasi gara, parte-hartzaileen osasun fisikoa eta gizarte eremua baita ere zaintzeko, hala nola, bizikidetzaren sareak hareagotzea baita ere, zeren eta Adinkideko boluntarioen laguntzarekin joaten gara.

Eta zein ederki! Tokia, laguntza...

Ekimena bere **eragin positiboak** sortzen ari da: konfidantza, aktibitate fisikoaren onurak, gainditzea, taldearen kohesioa, erlazio sozialak handitzea...

La Perla  **ADINKIDE**
GRANDES AMIGOS



Lehio ireki bat

Gure ongizaterako funtsezkoak dira bizi, partekatu, atsedean hartu, zaindu eta babesten garen **espazioak**.

Giroaren garrantziaz jabetuta, eta arreta-ereduaren gakoetako bat izanik, etengabe ari gara hobetzen eta esperientzia berriak probatzen, horretan aurrera egiteko.

Dohaintza hori **Iza zentroan espazio** bat hobetzera bideratu dugu, giroa zainduz, egokituz eta bertan bizi diren pertsonen beharrei erantzunez.

Hormak zabaldu nahi izan ditugu, mugak leundu, arriskurik gabe apaindu, leihoak sortu kanpora begira, **espazio esanguratsu** batzuetara.



Zaintzailea lagundu eta formatzen

Mendetasuna duten edo osasun-egoera ahulean dauden pertsonen zaintzaileak ere bide berri honetan daude, eta bide horretan ikasteko beharra dugu, eta haiekin egon nahi dugu.

Hainbat bideo egingo ditugu, hainbat egoeratan jarraibideak eta orientabideak jasoko dituztenak, eta mendekotasuna duten edo hauskortasun-egoeran dauden pertsonen senideei laguntzeko eta ikasteko balioko dutenak.

Prestakuntza arina eta erraza, batez ere bideo-euskarrian formulatua, plataforma batean jarriko dugu, eta behar duten senide guztientzat egongo da eskuragarri bertatik ikasteko aukera izateko.



Email 1



Hausnartu eta ekin

Proiektu honek hausnarketa bat sortu du, Matiako zentroetan bizi diren edo zentroetara joaten diren pertsonen begirada berri bat aplikatzen eta jarduera esanguratsuetan laguntzeko beharrak detektatzen eta erantzuna ematen laguntzen duena, horrela ekintza boluntarioa eta parte-hartze soziala aktibatuz.

Iraupen luzeko zainketen aurrean gizartea sentibilizatzea ere aurreikusten dugu, boluntariotzako erakunde batzuek parte hartu duten testigantzekin egindako bideoen bidez.

Erakunde askorekin elkarlanean aritu gara, eta aberasgarria izan da, sinergiak sortuz.

TANTAKA

DYA
GIPUZKOA



Laguntzaile 1



kutxa
FUNDAZIOA



Ukraniarekin guztiok

Eta gerrak nahi duzun lekuan eta moduan zahartzen uzten ez duenean?

Ekimen hau kolaboratzaileen saretik sortu zen, laguntza humanitarioa eskaintzeko eta errefuxiatuek bide seguru bat egin ahal izateko ahaleginak batuz.


Boluntarioak, laguntzaileak eta emaileak, denak laguntza eskaintzeko.



Emaille 114



2022an irekita dauden
Ekimenak



- #100FLUENCERS
- Trizikloz, nola ez!


#100fluencers

Lortutako
emaiteak:
23.345€



30 Emaille

Helburua:
47:000€



#100fluencers

Proiektu hau guztiontzat da, zenbat eta gehiago jakin, orduan eta gehiago hobetu dezakegulako.

Komunikabide digitaletan zahartzea nola etiketatzen dugun aztertzea da kontua. Nola hitz egiten dugu berataz? Baina, aldi berean, zer pentsatzen dugu? Bat datoz?

Proiektuak hiru multzo ditu: belaunaldi desberdinen arteko elkarrizketen ikus-entzunezko bilduma bat, zahartzeak zer esan nahi duen azaltzen duena; zahartzeari buruz hedabide digitaletan erabiltzen ditugun etiketak aztertzen dituen ikerketa bat; eta adinekoentzako baliabide digitalen erabilera gaitzeko bloke bat.

guuk.



Trizikloz, nola ez!



Helburua:
6.480€

Lortutako
emateak:
2.570€



72 Emaille

Trizikloz, nola ez!

Pertsona guztientzat garrantzitsua da irtetea, paseo bat ematea, inprobisatu ahal izatea, jendearekin topo egitea.

Baina ateratzeko era asko daude, Bizikletaz Adinik Ez duten irteera bakoitza ezberdina baita zentzu guztietan. Ingurunea desberdina da: hiruki bat. Gurekin dagoena desberdina da: boluntarioa. Nora iristen garen desberdina da: gune ESANGURATSUAK eta ERREKULATUZ beteak Donostian. Eta hizpide ditugun gaiak desberdinak dira: tradizioa eta HISTORIA.

2017an Bizikletaz Adinik Ez sortu zenetik, Donostiako Matiako hainbat zentrotan irteerez gozatu ahal izan dugu eta hainbat modutan lagundu dugu haien garapena, eta horrela izaten jarraitzea nahi dugu.

Lagunduko diguzu?



2022an martxan jarraitzen duten
Ekimenak



- Altuerako topaketak Alex Txikonekin
- Euskalduneatzen
- PrestAKzioa



Altuerako topaketak Alex Txikonekin

Altuerako topaketa horiek, aldizka egiten ditugunak, online izan ziren hasieran. Baina ekainean beste topaketa batez gozatzeko aukera izan genuen Aralarko San Migelen.

Online topaketekin eta Alexen bisita sorpresa batzuekin ere jarraitu dugu.

Hemen duzue Aralarreko topaketaren bideo bat:
<https://bit.ly/42Q2o0h>



Euskalduneatzen

2022an hainbat irteera egin ditugu gure Lamourous zentrotik, guztiak tokiko kultura eta historiarekin, gure kulturarekin lotutakoak. Sagardotegi batera joan ahal izan gara, kantuz eta dantzaz, tradizioak agintzen duen bezala.

Trenbidearen Euskal Museora joan gara, aurreko aldietako irteera, errutina eta bizipenekin hainbeste lotzen gaituena.

Loiolako San Inazion izan gara...


Irteera guztiak talde txikietan, koadrilan, giro onean, nahi ditugun inguruneetara, gureak, tokikoak izan dira.

Eta 2023an jarraituko dugu espazio eta jai gehiagotara iristen.



PrestAKzioa

Proiektu hori 2021ean izan zen, baina prestakuntza jada sortua eta pilotatua zegoen, eta hainbat arrazoiengatik parte hartu ezin izan zuten boluntarioak eta elkarteak detektatu genituen, eta Pertsonarengan Zentratutako Arretan formakuntza jasotzeko 2022an bi deialdi berri egin ditugu.





Emateak

matia
zaleak

2022 emateak



Kolaboratzeko aukerak

matia
zaleak

Kolaboratzeko aukerak

Nahi duzu boluntario izan?

Jar zaitez gurekin harremanetan, eta boluntariotza egiteko aukerei buruzko informazioa eta orientabideak emango dizkizugu, baita lankidetzan aritzen garen erakundeei buruzkoak ere...

Enpresa?

Elkarlanean aritzeko hainbat aukera bila ditzakegu, eta Matiazaleakeri babesa eman diezaiokezue. Beharrak askotarikoak dira: materiala, boluntariotza, ekimenetarako ekonomikoak. Hitz egiten dugu?

Egin zaitez bazkide

Egin zaitez bazkide eta lagundu ekarpen batekin. Zuk aukeratzen dituzu kopurua eta aldizkakotasuna.

Zure ekarpenarekin, Matiazaleakek sustatzen dituen ekimenak babestuko dituzu. Gogoratu zure ekarpenak onura fiskalak eskainiko dizkizula.



618344020



matiazaleak@matia.eus

Opari solidarioa

Hainbat opari solidario ditugu salgai online dendan.

Opari solidarioen onura guztiak ekimenetara bideratzen dira, eta, beraz, adinekoen eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen ongizatea hobetzen laguntzen dute:



Jar zaitez gurekin harremanetan eta kontaiezaguzu zer behar duzun eta laguntzeko modua bilatzen dugu.

Legatu solidarioa

Pentsatu duzu zer gertatuko den zu jada ez zaudenean? Zure elkartasunak eta gizartearekiko konpromisoak denboran iraun dezake eta pertsona askoren etorkizuna hobetu. Ondare solidarioa arrazoi solidarioei ondasun ekonomikoak lagatzeko aukera ematen dizun aukera bat da.

Zure testamentuan Matia Fundazioaren aldeko ondare solidarioa sartzeak zure inguruko adineko askoren bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetuko du, eta gure arreta-eredua finkatzen jarraitzera bideratuko gaitu, bizitzetara zentzua ematen jarraitzera.



Kolaboratzaileak

matia
zaleak



Kolaboratzaileak

Hezkuntza zentroak - Elkarteak- Enpresak



APTES



wetak



Gipuzkoako Odol Emaileak



ZEGAMAÑO
UDALA



DiBULiTOON
studio



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



bizitzarako hezkuntza




Un camino, mucha vida



Kolaboratzaileak

Hezkuntza zentroak - Elkarteak- Enpresak



Kolaboratzaileak

Hezkuntza zentroak - Elkarteak- Enpresak



Kolaboratzaileak

Hezkuntza zentroak - Elkarteak- Enpresak

La Perla



LLUCH
Wine &
Gastronomy
Marketing



TANTAKA



Kolaboratzaileak

Hezkuntza zentroak - Elkarateak- Enpresak



matia

zaleak

matiazaleak@matia.eu
www.matiazaleak.eu

